**KANPO-MERKATARITZAREN ESTATISTIKA (KAMEE). 2025eko martxoa**

# Euskal AEko esportazioek % 6,6 egin dute gora 2025eko martxoan

***753 milioi euroko merkataritza-saldo positiboarekin, % 1,6koa izan da hazkunde metatua lehenengo hiruhilekoan.***

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko ondasunen esportazioak 2.696 milioi eurokoak izan ziren 2025eko martxoan, aurreko urteko hil berean baino % 6,6 handiagoak. Energiazkoak ez diren esportazioek % 10,2 egin zuten gora eta energiazkoek % 38,3 egin zuten behera.

Inportazioen kasuan, % 11,7ko izan da hazkundea, energiazkoak ez diren produktuen kasuan % 24,3koa eta energia-produktuen kasuan % 20,1ekoa.

2025eko martxoan, merkataritza-saldoa positiboa izan zen 316 milioi eurorekin eta % 113,3ko estaldura-tasarekin.

## Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Martxoa 2025

| | ESPORTAZIOAK | | | INPORTAZIOAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Martxoa | | | Martxoa | | |
| | 2024 | 2025 | Gehikuntza (%) | 2024 | 2025 | Gehikuntza (%) |
| **EUSKAL AE** | | | | | | |
| HILABETEA, GUZTIRA | **2.528.851** | **2.696.049** | **6,6** | **2.130.534** | **2.379.893** | **11,7** |
| ENERGIAZKO GAIAK | 187.997 | 115.977 | -38,3 | 603.398 | 481.992 | -20,1 |
| ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK | 2.340.854 | 2.580.072 | 10,2 | 1.527.136 | 1.897.901 | 24,3 |
| URTEKO METATUA | **7.528.986** | **7.646.044** | **1,6** | **6.507.274** | **6.892.606** | **5,9** |
| ENERGIAZKO GAIAK | 505.373 | 264.408 | -47,7 | 1.801.860 | 1.585.372 | -12,0 |
| ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK | 7.023.612 | 7.381.636 | 5,1 | 4.705.414 | 5.307.234 | 12,8 |
| **ARABA / ÁLAVA** | | | | | | |
| HILABETEA, GUZTIRA | **746.489** | **850.870** | **14,0** | **477.555** | **647.503** | **35,6** |
| URTEKO METATUA | 2.299.984 | 2.495.816 | 8,5 | 1.388.286 | 1.709.454 | 23,1 |
| **BIZKAIA** | | | | | | |
| HILABETEA, GUZTIRA | **969.049** | **949.734** | **-2,0** | **1.247.225** | **1.201.177** | **-3,7** |
| URTEKO METATUA | 2.870.795 | 2.680.463 | -6,6 | 3.867.333 | 3.721.310 | -3,8 |
| **GIPUZKOA** | | | | | | |
| HILABETEA, GUZTIRA | **813.313** | **895.445** | **10,1** | **405.754** | **531.214** | **30,9** |
| URTEKO METATUA | 2.358.206 | 2.469.765 | 4,7 | 1.251.655 | 1.461.842 | 16,8 |

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2025eko Maiatzaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Hilabete horretan Bizkaiko esportazioek % 2,0ko atzerakada izan zuten, Gipuzkoan % 10,1ekoa eta Araban % 14,0koa. Esportazio energetikoak, Bizkaian, % 38,8 jaitsi dira aurreko urteko hil beraren aldean.

## *2025eko martxoan merkaturatutako produktuak*

Produktuen xehetasunetara jaitsiz gero, muga-zergen hamar partida nagusiek esportazioen % 39,7 bildu zutela ikusten da, guztira 1.070,6 milioi euro.

Muga-zergen 25 partida nagusien taldearen barruan, nabarmentzekoak dira lau partidatan izandako igoerak: alde batetik, "Bizarra kentzeko, zorrozteko, harriz lantzeko, artezteko, leuntzeko edo metal edo zermeterako beste akabera-eragiketa batzuk egiteko makina-erremintak" (% 525,4 eta 26 milioi), "Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak" (% 252,2 eta 64 milioi) eta "Bero bidez materiak tratatzeko aparatuak" (% 231,5 eta 25,3 milioi); eta, bestetik, "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" partida (% 61,5 eta 286,8 milioi esportatuta), guztizko hazkundeari pisu handia gehitzen diona.

"Petrolioaren olio finduak" % 33,4 jaitsi dira eta "Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak" % 40,4; lehenengoak, aurreko urteko hil berean baino 55,7 milioi gutxiago eta, bigarrenak, 68,4 milioi gutxiago.

## Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2025

| | 2024 | 2025 | 2025 (%) | 2025/2024 (%) |
|---|---|---|---|---|
| **ESPORTAZIOAK GUZTIRA** | **2.528.851** | **2.696.049** | **100,0** | **6,6** |
| 10 pertsona baino gutxiagoko turismoak | 177.570 | 286.849 | 10,6 | 61,5 |
| Automobilentzako zati eta osagarriak | 189.415 | 194.288 | 7,2 | 2,6 |
| Petrolioaren olio finduak | 166.400 | 110.747 | 4,1 | -33,4 |
| Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak | 169.366 | 100.946 | 3,7 | -40,4 |
| Kautxuzko pneumatiko berriak | 84.934 | 87.811 | 3,3 | 3,4 |
| Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako | 48.304 | 66.101 | 2,5 | 36,8 |
| Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak | 47.651 | 64.419 | 2,4 | 35,2 |
| Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak | 18.178 | 64.025 | 2,4 | 252,2 |
| Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak | 40.512 | 53.519 | 2,0 | 32,1 |
| Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne | 28.715 | 41.880 | 1,6 | 45,8 |
| Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina | 32.655 | 40.027 | 1,5 | 22,6 |
| 0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak | 25.406 | 39.090 | 1,4 | 53,9 |
| Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak | 32.801 | 32.476 | 1,2 | -1,0 |
| Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak | 22.926 | 31.151 | 1,2 | 35,9 |
| Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab. | 26.981 | 27.611 | 1,0 | 2,3 |
| Bizarra kentzeko, zorrozteko, harriz lantzeko, artezteko, leuntzeko edo metal edo zermeterako beste akabera-eragiketa batzuk egiteko makina-erremintak | 4.152 | 25.969 | 1,0 | 525,4 |
| Bero bidez materiak tratatzeko aparatuak | 7.630 | 25.290 | 0,9 | 231,5 |
| Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak | 23.511 | 25.286 | 0,9 | 7,6 |
| Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak | 7.838 | 25.099 | 0,9 | 220,2 |
| Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak | 13.621 | 23.342 | 0,9 | 71,4 |
| Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak | 20.738 | 23.032 | 0,9 | 11,1 |
| Transmisio-ardatzak, kojineteak, engranajeak, enbrageak, etab. | 21.394 | 22.700 | 0,8 | 6,1 |
| Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk | 20.087 | 22.613 | 0,8 | 12,6 |
| Metal arruntezko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak | 18.241 | 22.496 | 0,8 | 23,3 |
| Soja-olioa | 13.225 | 22.345 | 0,8 | 69,0 |

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Maiatzaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

**Inportazioen** kasuan, eta muga-zergen 25 partida garrantzitsuenei dagokienez, honako hauetan metatzen dira hazkunde esanguratsuenak: "Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak" (% 3.224,3 eta 56,4 milioi inportatu dira, ia guztiak Errusiatik), "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (% 1.560,0 eta 47,3 milioi inportatu dira, horien artean, 31,3 milioi Alemaniatik, 4,6 milioi Hungariatik eta 3,5 milioi Estatu Batuetatik), "Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (% 673,5, 30,6 milioi inportatu dira, horien artean, 25,8 milioi Alemaniatik, 3,1 milioi Erresuma Batutik eta 1,2 milioi Portugaldik) eta “Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko txatarra "(% 79,4 eta 54,3 milioi, horien artean, 32,5 milioi Frantziatik eta 11 milioi Erresuma Batutik, besteak beste).

## *ARABA. 2025eko martxoko esportazioak*

Araban esportazioak % 14,0 igo dira aurreko urteko hil beraren aldean. Horren arrazoia, funtsean, honako hauen salmenten portaera ona da: "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (271,3 milioi euro eta % 54,8ko hazkundea), "Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak" (% 25,3 milioi eta % 768,7ko igoera) eta "Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak" (46,4 milioi eta % 46,2ko hazkundea).

"Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak", aldiz, nahiz eta 99,9 milioi euro saldu diren,% 40,9 jaitsi dira.

### Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2025

| | 2024 | 2025 | 2025 (%) | 2025/2024 (%) |
|---|---|---|---|---|
| **ESPORTAZIOAK GUZTIRA** | **746.489** | **850.870** | **100,0** | **14,0** |
| 10 pertsona baino gutxiagoko turismoak | 175.280 | 271.288 | 31,9 | 54,8 |
| Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak | 168.859 | 99.856 | 11,7 | -40,9 |
| Kautxuzko pneumatiko berriak | 62.072 | 61.208 | 7,2 | -1,4 |
| Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak | 31.774 | 46.442 | 5,5 | 46,2 |
| Automobilentzako zati eta osagarriak | 36.085 | 42.166 | 5,0 | 16,9 |
| Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak | 2.918 | 25.346 | 3,0 | 768,7 |
| Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satelite eta ibilgailu espazialen zatiak | 11.658 | 17.151 | 2,0 | 47,1 |
| Ardoa, mahats freskoarena | 18.433 | 16.316 | 1,9 | -11,5 |
| Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak | 13.382 | 14.758 | 1,7 | 10,3 |
| Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak | 8.213 | 13.876 | 1,6 | 69,0 |

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Maiatzaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

## *BIZKAIA. 2025eko martxoko esportazioak*

Hainbat produktutan izandako jaitsiera garrantzitsuen ondorioz, Bizkaiko lurralde historikotik egindako esportazioek % 2,0 egin dute behera. Produktu horien artean daude, "Petrolioaren olio finduak" (% -33,9, aurreko urteko hilabete berean baino 55,8 milioi gutxiago) edo " Automobilentzako zati eta osagarriak " (% -13,3 eta 10,3 milioi gutxiago).

Kontrako noranzkoan, nabarmen hazi dira honako hauen salmentak: "Bero bidez materiak tratatzeko aparatuak" (% 1.116,5 eta 19,4 milioi), "Soja-olioa" (% 69,0 eta 22 milioi) eta "Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne" (% 47,2 eta 41,8 milioi).

# Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2025

| | 2024 | 2025 | 2025 (%) | 2025/2024 (%) |
|---|---|---|---|---|
| **ESPORTAZIOAK GUZTIRA** | **969.049** | **949.734** | **100,0** | **-2,0** |
| Petrolioaren olio finduak | 164.803 | 108.960 | 11,5 | -33,9 |
| Automobilentzako zati eta osagarriak | 77.560 | 67.274 | 7,1 | -13,3 |
| Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne | 28.404 | 41.822 | 4,4 | 47,2 |
| Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina | 27.766 | 29.612 | 3,1 | 6,6 |
| Kautxuzko pneumatiko berriak | 22.269 | 26.074 | 2,7 | 17,1 |
| 0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak | 18.794 | 24.919 | 2,6 | 32,6 |
| Soja-olioa | 13.225 | 22.345 | 2,4 | 69,0 |
| Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak | 17.878 | 21.171 | 2,2 | 18,4 |
| Bero bidez materiak tratatzeko aparatuak | 1.598 | 19.436 | 2,0 | 1.116,5 |
| Berotan ijetzitako produktu lauak, aleatu gabeko eta txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm | 12.445 | 16.268 | 1,7 | 30,7 |

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Maiatzaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

### *GIPUZKOA. 2025eko martxoko esportazioak*

Gipuzkoako esportazioak % 10,1 hazi dira hilabete honetan, produktu nagusi gehienek portaera ona izan dutelako, hala nola: "Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak" (% 48,5, 61,7 milioi esportatuta), "Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako" (% 48,9 eta 53,4 milioi), "Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak" (% 70,8 eta 21,2 milioi), baina, batez ere, "Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak" (% 156,7 eta 37,7 milioi) eta "Bizarra kentzeko, zorrozteko, harriz lantzeko, artezteko, leuntzeko edo metal edo zermeterako beste akabera-eragiketa batzuk egiteko makina-erremintak" (% 544,0 eta 26 milioi).

# Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2025

| | 2024 | 2025 | 2025 (%) | 2025/2024 (%) |
|---|---|---|---|---|
| **ESPORTAZIOAK GUZTIRA** | **813.313** | **895.445** | **100,0** | **10,1** |
| Automobilentzako zati eta osagarriak | 75.770 | 84.848 | 9,5 | 12,0 |
| Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak | 41.580 | 61.752 | 6,9 | 48,5 |
| Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako | 35.871 | 53.412 | 6,0 | 48,9 |
| Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak | 14.679 | 37.683 | 4,2 | 156,7 |
| Bizarra kentzeko, zorrozteko, harriz lantzeko, artezteko, leuntzeko edo metal edo zermeterako beste akabera-eragiketa batzuk egiteko makina-erremintak | 4.031 | 25.964 | 2,9 | 544,0 |
| Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak | 20.703 | 22.950 | 2,6 | 10,9 |
| Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab. | 24.187 | 22.854 | 2,6 | -5,5 |
| Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak | 12.399 | 21.181 | 2,4 | 70,8 |
| Metal arruntezko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak | 16.442 | 20.510 | 2,3 | 24,7 |
| Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak | 16.999 | 16.876 | 1,9 | -0,7 |

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Maiatzaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

## *2025eko martxoko xede-herrialdeak*

Hilabete honetan, esportazio-rankingeko lehenengo postuetan honako hauek daude:

- **Frantzia:** 429,0 milioi euroko balioa duten ondasunak esportatu dira herrialde honetara, % 198,9ko estaldura-tasarekin.
- **Alemania:** 392,1 milioiko balioa duten Euskal AEko produktuak jasotzen ditu, % 94,9ko estaldura-tasarekin.
- **Italia:** herrialde honetara bideratutako salmentak 170,2 milioira iritsi dira, eta estaldura-tasa % 144,4koa izan da.
- **Erresuma Batua**: 164,9 milioi euroko balioa esportatu da, % 310,6ko estaldura-tasarekin.
- **Estatu Batuak**: 160,6 milioi euro bideratu dira herrialde honetara eta % 178,2ko estaldura-tasa lortu da.

Herrialde horiek esportazio guztien % 48,8 hartu dute, eta horietako hiru EB-27koak dira, hau da, EB-27ak esportazio horien % 62,9 hartu du.

## *2025eko LEHEN HIRUHILEKOA: Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 753 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta estaldura-tasa % 110,9koa izan da 2025eko lehen hiru hilabeteko metatuan*

Euskal AEko esportazioak % 1,6 igo ziren aurreko urteko aldi beraren aldean, hau da, 117 milioi euro gehiago. Esportazioen zenbatekoa 7.646 milioikoa izan zen aldi horretan.

Bizkaiko esportazioak Euskal AEko altuenak dira, 2.680 milioi; Gipuzkoak 2.470 milioi esportatu ditu eta Arabak 2.496 milioi.

Produktu mota kontuan hartuta, "energiazkoak ez diren gaiak" dira ugarienak, 7.381,6 milioi eurorekin.

Xehetasunetara jaitsiz, ondoko gaien esportazioek egin dute gora (% 42,5): "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (874,7 milioi esportatuta), "burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak" (% 157,4 eta 109,8 milioi) eta "soja-olioak" ( % 196,1 eta 66,5 milioi).

Jaitsiera nabarmenenak "Automobilentzako zati eta osagarrietan" (aurreko urtean baino 45,7 milioi gutxiago, -%7,7), "Zamak garraiatzeko ibilgailu automobiletan" (99,7 milioi gutxiago, -%22,3) eta, batez ere, "Petrolioaren olio finduetan" (210,5 milioi gutxiago, -%51,3) egon dira.

# Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Martxoa 2025

| | Kodea | Izendapena | Mila euro |
|---|---|---|---|
| | | ESPORTAZIOAK GUZTIRA | 7.646.044 |
| 1 | 8703 | 10 pertsona baino gutxiagoko turismoak | 874.725 |
| 2 | 8708 | Automobilentzako zati eta osagarriak | 550.674 |
| 3 | 8704 | Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak | 347.242 |
| 4 | 4011 | Kautxuzko pneumatiko berriak | 266.092 |
| 5 | 2710 | Petrolioaren olio finduak | 199.471 |
| 6 | 7216 | Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak | 162.815 |
| 7 | 8481 | Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako | 157.882 |
| 8 | 7304 | Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak | 148.680 |
| 9 | 8411 | Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne | 119.192 |
| 10 | 8607 | Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak | 109.802 |
| 11 | 9990 | Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak | 107.187 |
| 12 | 7606 | 0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak | 102.765 |
| 13 | 7326 | Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak | 93.820 |
| 14 | 8504 | Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina | 86.088 |
| 15 | 8537 | Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak | 82.255 |
| 16 | 8428 | Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab. | 79.443 |
| 17 | 7222 | Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak | 71.150 |
| 18 | 1507 | Soja-olioa | 66.453 |
| 19 | 7325 | Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk | 65.472 |
| 20 | 8605 | Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak | 62.660 |
| 21 | 7306 | Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak | 62.110 |
| 22 | 8301 | Metal arruntezko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak | 58.862 |
| 23 | 8422 | Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak | 58.740 |
| 24 | 7308 | Xaflen bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko | 58.105 |
| 25 | 8483 | Transmisio-ardatzak, kojineteak, engranajeak, enbrageak, etab. | 58.043 |

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Maiatzaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2025eko lehen hiru hilabete horietako rankingean, Frantzia da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 15,6rekin (1.196,6 milioi). Frantziaren atzetik, Alemania (% 14,8 eta 1.134,0 milioi) eta Erresuma Batua (% 6,5 eta 493,2 milioi) daude. Horrela, hiru herrialdeen artean Euskal AEko esportazioen % 36,9 biltzen dute.

Inportazioen metatua 6.893 milioi eurokoa izan zen Euskal AE osoan. Urte arteko alderaketa eginez gero, aurreko urteko aldi berean baino 385 milioi gehiago direla (% 5,9) ikusten da. Igoera horren arrazoia da, neurri batean, Arabako lurraldean, 1.709 milioiko inportazio metatuekin, aldi horretan izan den % 23,1eko hazkundea; hau da, 2024ko aldi berean baino 321 milioi gehiago. Gipuzkoako inportazioak ere 210 milioi gehiago izan dira (% 16,8), 1.462 milioi guztira. Bizkaian % 3,8 jaitsi da (146 milioi gutxiago), 3.721 milioi guztira. "Produktu energetikoen" inportazioek % 12 egin dute behera, baina "Energiazko gaien" inportazioek % 12,8 egin dute gora.

Aldi horretan inportatutako produktu-partidak aztertuz gero, rankingeko lehen postuan “Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak” daude (1.003,2 milioi, aurreko urtean baino 194,7 gutxiago, hau da, % 16,3 gutxiago) eta bigarren postuan, berriz, “Petrolioaren olio finduak” (417,4 milioi inportatu dira, 84,3 milioi gutxiago, eta % 16,8ko atzerakada). Partida horien atzetik datoz "Automobilentzako zati eta osagarriak" (-%12,1 eta 220,3 milioi) eta "Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak" (160,8 milioi inportatuak, hau da, % 76,7ko gehikuntza).

Euskal AEko kanpo-merkataritzak 753,4 milioi euroko saldo positiboa izan du urteko lehen hiruhilekoan, eta estaldura-tasa % 110,9koa izan da.




***Informazio gehiago:***
*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*
*Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz*
*Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62*